

EROSKI-K BESTE SUPERMERKATU BAT INAUGURATUKO DU IRUÑEAN, NAFARROAN

- **Saltoki berriak elikagai freskoetan espezialista den produktu sorta bat eskainiko du, eta tokiko produktuen alde egingo du**
- **851 metro koadroko salmenta areto bat du, eta 31 langile izango ditu**
- **EROSKI 380 hornitzaile ingururekin dihardu Nafarroan, eta, 250 milioi euroko erosketa bolumenarekin, herrialdeko 3.200 produktu baino gehiago saltzen ditu**

Iruñea, 2025eko urriaren 22a.– [EROSKI](#)k bihar irekiko du supermerkatua, Estafeta kaleko 67.ean, Iruñean. Saltokiak EROSKI/City izena hartuko du, eta 851 metro koadroko salmenta aretoa izango du.

Denda berria irekita, 31 lanpostu sortuko dira. Langileek 1.000 orduko formakuntza bat egin dute, bezeroei irtenbide egokiagoak eskaintzeko eta dendan lan egiten duten profesional taldeen autogestioa handitzeko.

Aurreztearen aldeko apustua egingo du denda horrek ere, eta EROSKI Cluba izango da aurrezpen horren erakusgarri behinena. Bezero Bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta oso sustapen erakargarriak ditu; baita Travel Club programaren abantaila guztiak ere, zeinak Nafarroan 300.000 bazkide baino gehiago baititu.

Tokiko produktu freskoek garrantzi handia dute

"Iruñean ireki dugun denda berri honek Nafarroako produktu ugari izango ditu. Hori da gure erakundearen nortasunaren ezaugarri nagusietakoa, baina ez hori bakarrik: gure bezeroentzat erakargarri garrantzitsua ere bada", adierazi du EROSKIko Supermerkatuen eta Prozesuen arloko zuzendariak, Alberto Madariagak.

Nekazaritzako elikagaien arloan aritzen diren Nafarroako 150 ekoizle txikirekin lankidetzan aritzen da EROSKI, eta haien produktuek leku nabarmenak dituzte bere dendetako sail guztietan. EROSKIren politika komertzialak ahalik eta gehien indartzen ditu tokiko ekonomiak, inguruan aberastasuna sortzeko eta nekazaritza, ekonomia eta gizartea garatzen laguntzeko. Tokiko nekazaritza-ehuna oso dibertsifikatuta dago, eta EROSKIren ereduak ehun hori bultzatzen du, funtsezkoa baita sektoreak iraun dezan.

Saltokiaren beste ezaugarrietako bat bezeroari arreta pertsonalizatua eskaintzeko apustua da: horretarako, salmahaiak jarri ditu harategian, urdaitegian eta arrandegian.

**EROSKI – Komunikazio Korporatiboko
zuzendaria**

Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es

INCÓGNITO – Prentsa bulegoa
Silvia Peralta

Tel: 917 379 950

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere toki berezia izango dute supermerkatu berrian, elikadurako joera berri guztiak biltzen dituzten guneak baititu. Gainera, atal horretan, produktu ugari daude elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...), baita gantz, azukre edo gatz gutxi hartu behar dutenentzako produktu egokiak ere.

Eraginkorragoa eta iraunkorragoa

Ingurumenari dagokionez, saltoki iraunkorragoa da. Denda eredu berri horrek hobekuntzak dakartza klimatizazioan, hozte industrialean eta argiztapenean. Hala, egindako berrikuntzei esker, saltokiak ingurumenean duen eragina murriztuko da, eta bezeroentzat argi eta temperatura atseginagoak eskainiko ditu. Besteak beste, hozte sistema eraginkorragoak erabiltzen dira, gutxiago kutsatzen dutenak, hozte altzariak ixteko modua berritu da, eta LED argia erabiliko da saltokian. EROSKIren belaunaldi berriko dendak ekoefizienteagoak dira, eta eraginkortasun energetikoaren aldeko neurriak dituzte; hala, ohiko supermerkatu batek baino energia gutxiago kontsumitzen dute.

EROSKI Nafarroan

EROSKIk Nafarroako 3.200 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta hemengo 380 hornitzaile ingururekin dihardu, haiei 250 milioi euroren erosketak eginez urtero. EROSKIk 103 establezimenduko sare komertziala du Foru Erkidegoan, hala nola janari dendak eta gasolindegia, [online](#) supermerkatua ez ezik.

Inaugurazio ekitaldi ofiziala arratsalde honetan

Nahiz eta supermerkatu berriak ateak bihar irekiko dituen jendaurrean (ostegunarekin), 09:00etatik 21:00etara, EROSKiko langileek, senideek eta bezero-bazkideek arratsalde honetan inauguratuko dute, 18:00etan. Lagun egiten, berriz, Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria, **Mikel Irujo Amezaga**, Merkataritza eta Kontsumoko zuzendari nagusia, **Pablo Ezkurra Fernandez**, Iruñeko Udaleko lehen alkateordea, **Garbiñe Bueno Zabalza**, Iruñeko Udaleko Sustapen Ekonomikoko eta Europar proiektu zinegotzi ordezkaria, **Mikel Armendariz Barnechea**, eta EROSKiko Supermerkatuen eta Prozesuen arloko zuzendaria, Alberto Madariaga, baita EROSKiko beste ordezkari batzuk ere.